

Tumoreak eta zirkulazio aparatuko gaixotasunak izan ziren heriotzen eragile nagusiak 2005ean

Hildakoen batez besteko adina ia 6 urte igo da azken 15 urteetan

Euskal Autonomia Erkidegoan 19.425 pertsona hil ziren 2005ean, horietatik 10.329 gizonezkoak eta 9.096 emakumezkoak. 2004. urtearen aldean heriotzak %4 gehitu ziren, EUSTATen datuen arabera.

Heriotza kopurua baino 290 jaiotza gehiago izan zen; horrenbestez, eta 2004. urtean baino neurri txikiagoan bada ere, hazkunde begetatiboa positiboa izan zen. Lurraldeka, Araban eta Gipuzkoan saldo positiboak lortu ziren, hurrenez hurren 294 eta 685 gehiago izan baitziren jaiotakoak; Bizkaian, aldiz, heriotzak gehiago izan ziren jaiotzak baino (-689).

Hildakoen batez besteko adina 76,8 urte izan zen; 1990. urtean batez besteko hori 71 urtekoa zen, hau da, 5,8 urte gehitu da batez bestekoa. Sexuen arabera, gizonak batez beste 73 urterekin hil ziren eta emakumeak 81,1ekin.

Haurren heriotza-tasari dagokionez, jaiotako mila umetik urtebeteko 2,9 hil ziren. Gehienez 28 egun bizi izan diren 46 jaioberri hil ziren. Horietako 36, jaioberriaren heriotza goiztiarraren ondorioz gertatu ziren, lehenengo astean hil zirelako; eta 20, jaio eta 24 ordutan hildakoak izan ziren. Urtebete baino gutxiagoko haurren artean neskak baino (21) mutil gehiago (36) hil zen.


2005. urteko heriotzen %30,3 (5.891 hildako) zirkulazio-aparatuko arazoaren ondorioz gertatu ziren, %28,1 (5.462 hildako) tumoreen ondorioz, eta hirugarren postuan baina tarte handiarekin, %11,4 (2.214 hildako) arnas gaixotasunen ondorioz.

Sexuaren arabera, heriotzaren eragileak ezberdinak izan ziren. Gizonen artean, tumore baten ondorioz hildakoak zirkulazio-aparatuko arazoaren baten ondorioz hildakoak baino gehiago izan ziren; emakumeen artean, berriz, heriotza gehien eragin zuten gaixotasunak kardiobaskularrak izan ziren eta bigarren gaixotasunak tumoreak.

Era berean, heriotza eragin zuten arrazoiak adinaren arabera ezberdinak izan ziren. Urtebete baino gutxiagoko haurren artean gehienak jaiotza inguruko aldian sortutako gaixotasunengatik eta sortzetiko malformazioengatik hil ziren; 34 urtera arteko pertsonen artean kanpoko kausak izan ziren nagusi; 35 - 74 urte bitarteko pertsonen artean tumoreak eta 75 urte baino gehiagokoen artean zirkulazio-aparatuko arazoak.

Kanpoko kausen ziozko heriotzen artean, bestalde, zirkulazio-istripuak (179 heriotza) eta norberaren buruaz beste egitea (171 heriotza) nabarmendu behar dira. Bi kasuetan, emakumeak baino gizon gehiago hiltzen da: 129 gizon eta 50 emakume zirkulazio-istripuetan eta 128 gizon eta 43 emakume bere buruaz beste eginda.

1. grafikoa: Heriotzak, kausaren eta sexuaren arabera (%)



1. taula: Heriotzak sexuka, kausaren arabera.

	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	Kop.	%	Kop.	%
Kausa guztiak	10.329		9.096	
Gaixotasun infekzioso eta parasitarioak	221	2,1	186	2,0
Tumoreak	3.518	34,1	1.944	21,4
Guruin endrokinoetako, elikaduraren eta metabolismoaren gaixotasunak	265	2,6	359	3,9
Trastorno mentalak eta portaeraren trastornoak	252	2,4	581	6,4
Nerbio-sistemako gaixotasunak	371	3,6	550	6,0
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	2.821	27,3	3.070	33,8
Arnas sistemako gaixotasunak	1.272	12,3	942	10,4
Txegoste-sistemako gaixotasunak	513	5,0	437	4,8
Sistema genitourinarioko gaixotasunak	198	1,9	194	2,1
Zantzu, zeinu eta aurkikuntza anormal klinikoak eta laborategikoak	241	2,3	368	4,0
Kanpoko heriotza-arrazoiak	537	5,2	239	2,6
Beste batzuk	120	1,2	226	2,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp